

EUSKALZALE ALDIZKARIAREN MENDEURENA

Bilbon, 1997-01-31

Jose Antonio Arana Martija

Astean asteango albistari edergarriduna deitzen zion R.M. Azkuek 1897.eko urtarrilaren 3an kaleratu zuen *Euskalzalet* aldizkariari. Ehun urte bete dira, beraz, Azkue kazetari gisa agertzen zaigunetik eta asko badira lehen euskaltzainburuaren euskararekiko emaitzak, hau da ahaztu ezinezko bat, gaur gogoratu eta txalotu behar duguna.

Arraroa badirudi ere, *Euskalzalet* agertu arte, XIX. mendean euskaraz soil-soilik kaleratu ziren aldizkariak, urteetako iraupenekin, Californiako Los Angelesen atera zituzten bi hauek dira bakarrik: *Escualdun Gazeta* (1885-1896) eta *Californiako Euskal Herria* (1893-1898). Euskal Herrian, euskararen herrian, ez zen inor ausartu % 100ean euskaraz aldizkari bat argitaratzen eta gertaera honek mereziko luke ikerketa sozio-linguistikoa edo/eta sozio-politikoa egitea. Beste arlo askotan bezala, Azkue izan zen honetan ere aitzindari. Hiru urteren zehar, astero eta hutsik gabe, zortzi orrialdedun albistaria argitaratzea ez da txantxetakoa, kontuan izanik, gainera, Azkuek berak idazten zuela gehiena. Horregatik bizkaiera zen aldizkariaren euskalkirik ugariena, baina idazkideen zerrenda ikusirik, beste euskalkiak ere han zeuden euskara mota ezberdinen lekuko. Guztira 1.252 orrialde eman zizkigun Azkuek euskaraz eta ez da, zinez, altxor makala. Lehen edizioa aurkitzea hain zaila denez, eskerrak eman behar zaizkio Sendoa argitaldariari 1982an argitalpen faksimila egin zuelako, Justo Maria Mokoroa jaunaren hitzaurrearekin.

Bizkaiko Institutuan euskal katedra irabazi zuenetik (1888), arduratuta zebilen Azkue euskararen pedagogiaz eta hizkuntzaren normalizazioaz. Aldizkari bat atera baino lehen beharrezkoa zen ortografia arautua onartzea eta hori izan zen 1896an egin zuena *Proyecto de Ortografía* argitaratuz. Ez zetorren bat Jose Ignacio Arana jesuitak eta Arturo Campionek proposatutako sistemekin. Eta hiruren kontra jarri zen urte berean Sabino Arana *Lecciones de Ortografía del Euskera Bizkaino* argitaratu zuenean. Astinketa gogorak ematen dizkio abantotarrak lekeitiarrari baina, oraingoz behintzat, bakoitzak bere bidea jarraitzen du. Ahaztu ezin duguna da 1896 urte horretan, euskararen irakaskuntza eta hedakuntzarako Ikastetxea eta Euskaldun Biltokia sortu zituela Azkuek.

Euskararen hedakuntzarako eskuartean beharrezkoa zuen tresna aldizkaria zen. Hurrengo orrialdean ematen dut euskara —gutxi edo asko— ematen zuten

aldizkarien zerrenda. Oso gutxi zen hegoalde honetan *Euskal Erriak*, *Baserriarrak* eta *Euskaldunak* zekartena. Zerbait asmatu behar zuen euskararen zabalkunderako eta iruditu zitzaion elizgizonak izan zitezkeela biderik onena eurei eta haien bidez herritarrei mezua emateko. Horregatik lehen alearen atarian idatzi zuen: “Elizgizonak izango dira paper onetan iratsi edo eskribiduko daben geienak” Horien partaidetzak —uste zuen— emango ziotela harpidetzak lortzeko aukera. Bestalde, “abadetseetan atek zabal zabalik” izatea nahi zuen, lankide ez baziren ere, irakurleen harpidetzak jasotzeko. Gero ikusiko dugunez, asmatutako plangintza honek 600 harpidedun edo eman zizkion.

EUSKAL ALDIZKARIAK (1815-1899) (1)

Urteak	Izenburua	Non	Nork	Aldizkatasuna	Hizkuntza	Euskara %
1815	Egutegia eusquerazcoa	Bilbo	Ullibarri	Ale bakarra	B.	100
1834	El Correo del Norte	Donostia		2 ale astero	Gaz. E.	
1844-1852	Ariel (2)	Baiona	J.A. Chaho	Astekaria	F.I.E.	
1848	Uscal-Herrico Gaseta (3)	Baiona	J.A. Chaho	2 ale bakar.	L.	100
1877-1880	Cancionero Basco (4)	Donostia	J. Manterola	Hilabetero	Gaz. euskalk.	70
1878-1883	Revista Euskara	Iruñea	A. Campion	Urtekaria	Gaz. N.	30
1880-1883	Beti Bat (5)	Bilbo		Egunkaria	Gaz. B.	(5)
1880-1918	Euskal Erria	Donostia	J. Manterola	Hamaboskaria	Gaz. euskalk.	40
1883	Bai jauna bai	Donostia		Astekaria	Gaz. G.	

- (1) RUIZ DE GAUNA, Adolfo: *Catálogo de publicaciones periódicas vascas de los siglos XIX y XX*. Eusko Ikaskuntza, Eusko Jaurlaritzak, 1991, baita DIAZ NOCI, Javier: *Euskarazko aldizkari, egutegi eta almanaken errolda (1834-1959)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 1994, 188 orr. 25 cm. Julien Vinson eta Jon Bilbaoren Bibliografiak ere begiratu ditut lauki hau osotzeko, eta beste argitalpen batzuk ere gero aipatuko direnak. Euskaraz argitaraturiko Almanakak eta Egutegiak ez ditut laukian sartu.
- (2) Aldizkari honen testuetatik gehienak frantsesez idatziak dira, baina badaude euskal herri kantak, idazle batzuen euskarazko lanak, hala nola, J.A. Chahoren “Herritar Ecinaco-maitiac”, Agustín Iturriagaren “Etchecho arratoya eta soro arratoia” eta beste euskal testu batzuk. Ikus: SOTA, Manuel de la: “Inventario vasco de viejas revistas. I. Ariel”. *Eusko Jakintza*, 1947, 1, 277-281.
- (3) OIHARTZABAL, Beñat: “Euskarazko kazetaritzaren lehen entseia: A. Chaho-ren Euskal Herriko Gazeta. 1848”. In: *Patxi Altunari omenalaia*, Donostia, Mundaiz, 1990, 191-206. Faksimilaturik ematen ditu agertu ziren bi ale bakarrik.
- (4) ARANA MARTIJA, Jose Antonio: “Manterolaren Cancionero Basco”. *Euskera*, 1984, 449-462. SAN MARTIN Juan: “Jose Manterola, egile eta eragile”. *Ibid.* 443-448.
- (5) Egunkari honetan agertu zen lehendabizi, 1880an, Juan Antonio Moguel-en *Peru Abarca*.

Urteak	Izenburua	Non	Nork	Aldizkatasuna	Hizkuntza	Euskara %
1883-1889	El eco de San Sebastián	Donostia		Egunkaria	Gaz. G.	
1885-1896	Esculdun Gazeta	Los Angeles		Astekaria	BN	100
1886-1894	Le réveil basque	Pabe		Astekaria	F. Z. BN.	50
1887-1944	Eskulduna (6)	Baiona	L. Etcheverry	Astekaria	F. L./ BN.	90
1888	Gure izarra	Paris		Ale bakarra	Euskalkiak	100
1889-1890	La abeja (7)	Bilbo	R.M. Azkue	Hilabetero	Gaz. B.	30
1893-1898	Californiako Euskal Herria (8)	Los Angeles	J.P. Goytino	Astekaria	L.	100
1893-1897	Baserritarra	Bilbo	S. Arana	Astekaria	Gaz. B.	20
1893-1895	Bizkaitarra (9)	Bilbo	S. Arana	Hilabetero	Gaz. B.	15
1893-1911	Biarritz-Thermal (10)	Biarritz		Astekaria	F. L.	
1893-1936	La Basconia	B.° Aires		Hamaboskaria	Gaz. B. G.	5
1896-1909	Euskalduna	Bilbo	Euskalerriako	Astekaria	Gaz. B.	15
1897-1899	Euskalzale	Bilbo	R.M. Azkue	Astekaria	B. euskalk.	100

- (6) Astekari honen berri, datu zehatzak, zuzendarien izenak eta abar eman zizkigun Piarres Charritton euskaltzainak 1887-3-29an Baionan Euskaltzaindiak egindako omenaldian. Euskal kazetari izari buru hitz egin zuten eginkizun berean Luis Villasante euskaltzainburuak, eta Martin Ugalde, Luis Alberto Aranberri eta Jose Mari Iriondok. Ikus *Euskera*, 1987, 2, 243-269.
- (7) Euskal kultura eta euskararen alde lan egiteko bildu ziren, aldizkari honen inguruan, Resurreccion Maria Azkue, Sabino Arana, Silberio Etxebarria, Antonio Arginzoniz eta besteren bat. Hauetatik euskaraz idatzi zuen bakarra Azkue izan zen eta *La abeja* honetan eman zigan “Peru matraka ta Pedranton” ipuina.
- (8) KNÖRR, Endrike: “De cuando se hacían periódicos vascos en California”. *Diario Vasco*, 1990-2-11, 20. orr.
- (9) *Bizkaitarra* Sabino Aranak kaleratutako aldizkaria zen. Baina izen berbera zeraman sortu zuen talde politikoak. Bizkaiko Diputaziorako karguen hauteskundeak izan ziren 1898an eta Bilbo-aldean Sabino Arana eta Gernika-aldean Angel Zabala Ozamiz-Tremoya hautagai aurkeztu ziren. Propagandarako erdaraz idatziriko orria kaleratu zuten, Azkuek euskarara itzuli zuena *Euskalzaletan* argitaratuz (1898-9-1). Papertxo horren edukinari zera gehitzen zion Azkuek: *Euskalzale* ez zela politika arazoetan sartzen eta ez zeukala ezer talde horren alde edo kontra, baina “Euskerea zabalduko iaio giñean, da euskerea zabalduko alegiña egiten dabena begi onagaz ikusteko. Goreago aitaturiko biak, batez bere lenengoak, euskerearen alde zeinbat alegiñ egin dabena edonok daki; ta ekauta izatera elduko balitz, len beste edo geiago egingo dabela esan leike. Onegatik EUSKALZALEk dei au argitaratu ez eze pozarren ikusiko leukez Arana eta Zabala Bizkaiko lauregian”. Luzea izan arren aipamena, testu osoa ematea interesgarria dela izate izan dirakur-leak ikus dezan nola baloratzen zuen Azkuek, euskara arloan, Aranaren lana.
- (10) Astekari honetan agertzen dira euskarazko testu hauek: Mme. D'Abbadie: “Hesculdun emazteki azcarra”, Miss. M.G. Webster: “Ama eskuldunaren bihotz-mina”, J.B. Daranatz: “Eskuara” olerkia, Cayetano S. Irure: “Gaspar, Melchior ta Baltasar” olerkia, J.B.A.: “Etcheona” olerkia eta Paulo Zamarripa Uraga: “Bi soldado baigorriarrak”. Ikus: SOTA, Manuel de la: aipaturiko lana, 282-287 orr.

Baina ortografian batasuna lortzetik gain, lexikoan ere garbiketa egin nahi zuen, erdal hitzak baztertuz. “Alik garbien da errazen agertuko dira euskerazko berbak” zioen eta euskaraz sartutako hainbat erdal hitzak baztertuko zituela

uste zuen (adibideak ematen ditu) eta “su emongo iako erderakada-pilo orreri” esanaz, nolabaiteko garbizale azaltzen zaigu Azkue bere bizitzako lehen aldi honetan. “Vascuence edo azkuence” ote zen gomendatu nahi zuena, Dodgsonen esanetan?

Lehen aletik hasita finkatzen ditu *albistariaren* sailak. Ez du aldizkari monolitiko astuna kaleratu nahi. Irakurtzeko erraza, erakargarria eta xarmagarria nahi du eskaini. Aldizkariaren plangintzan sartzen ditu ikaskizunak, gutunak, irakurgaiak, sermoiak, “done edo santuen bizitzak” eta erlijio gaiak, elizgizonei begira, baina herritar arruntentzat ematen ditu “tširristadak”, hitz neurtuak, esakuneak, izkirimiriak, igarkaiak, ipuinak, euskal festen berriak, eta abar. Gai jolasgarri eta entretenigarriak, hain zuzen.

Berehala lortu zuen orduko idazle ezagunen lankidetza. Hara hemen zerrenda: Txomin Agirre, Antia, Arakiztain, Jose Inazio Arana, Emeterio Arrese, Felipe Arrese-Beitia, Arriandiaga, Gregorio Arrue, Artola, Azkarate, Azkuna-ga, Bustinza, Campion, Dodgson, Etxegarai Karmelo eta Bonifazio anaiak, Guerra, Inzagarai, Iñarra, Iraola, Maguregi, Mokoroa, Orkaiztegi, Unamunzaga, Urruzuno, eta Zamarripa. Orduko idazleen islada baliotsua eman zigula esan dezakegu.

Aipatutako idazle batzuen lanak bereziki azpimarratu nahi nituzke, lehen emanaldiak zirelako eta euskal literaturan, urteak joan urteak etorri, ereduzko tokia lortu dutelako. *Euskalzalzen* agertu ziren Txomin Agirrereren “Joan etorri bat Erromara”, “Añamendiko lorea” Sermoiak, “Anton Betozko”. Azkueren “Bein da betiko” Antoine d’Abbadieri heriotzaren ondoren eskainitakoa, “Tširristadak” eta “Sasi-eskola”. Karmelo Etxegarairen “Malko bedeinkatuak” eta “Euskal Herria”. Juan Carlos Guerraren “Ama Birjina Arantzazukoaren kon-daira”.

Bizirik zeuden idazleen lanetatik aparte, jadanik klasikoak izatera iritsi ziren hildakoen lan hauek ere argitaratu zituen *Euskalzalzek*: Barrutiaren “Gabetako ikuskizuna”, Elizanbururen kantak, Iparragirrerrenak, Kardaberaz “Euskararen berri onak”, Mendibururen “Jesusen biotz maitearen debozioa”, Bizenta Moguelen “Ipui onak” eta Juan Antonio eta Juan Jose Moguelen lan hautatuak.

Hemen gehitu behar dut Azkuek Jardines kalean zeukan moldiztegian “Euskalzale liburutegia” sailean liburuak ere kaleratu zituela. Salgai zeuden Azkueren “Sancta sanctorum” horretan, baina aldizkarian agertzen ziren igarkizunen asmatzaileei opari gisa ere igortzen zizkien Azkuek. Bost liburu hauek argitaratu zituen:

Añibarro: *Esku liburua* eta *Lore-sorta ezpirituala*.

Moguel: *Konfesiño ona* (bizkaieraz).

Ubillos: *Kristau doktriñ berri ekarlea*.

Añibarro-Moguel: *Meza-entzukera bi*.

Denok dakigunez, herri musika biltzaile eta musikagilea ere izan zen Azkue. Ia ale guztietan argitaratu zituen, pentagraman jarriak eta berak harmonizatuak liturgiaren aroak eskatzen zituzten doinuak eta herri kantak. Hauen artean bereziki aipatuko nituzke: “Lekeitioko Marijesiak”, “Done Agedaren eresia”, “Hiru Errege” kantua, gero Jesus Guridik ahotsetarako harmonizatuak, eta testu aldetik gauza berezi bat aipatzearen “Basa-txoritxu” herri kanta. Azkuek ematen digun testuak hala dio: “Basa-txoritxu mustur luziak / ez joan zerura bila”. Sabino Arana edo “aranisten” eskutik testua hala geratu zen: “Ez jun donokira bila” Azkue baino garbizaleago zela Arana denok dakigu.

Edergarriduna zela *Euskalzale* azpitudunak esaten digu. Edergarri edo ilustrazio horiek argazkiz edo irudien bidez agertzen dira. Hainbat Euskal Herri zabaleko herrien argazkiak eman zizkigun Azkuek. Elizak eta bestelako erakuntzak ere bai. Bizpahiru aldiz ematen dizkigu Gernikako Arbolaren argazkiak. Euskal liburuak ilustratzeko pertsonaien argazkiak bilatzen ibiltzen gara eta dira argitaldaria. Ikonografia aldetik hau da *Euskalzale* ematen diguna: Iparragirre eta familia, Iñarra, Arrese-Beitia, Trueba, Labayru, Antia, E.M. Azkue, Elizanburu, Aizkibel.

Hiru urte betetzear zegoen Azkueren albistaria hilzorian aurkitu zen 1899.eko irailean. Euskaraz soilik argitaratzen zuelako 100 pezetako isuna leporatu zion Bizkaiko Gobernadore Zibilak, Inprentaren Legearen 11. artikulua galeratzen zuelako. Amore eman zuen Azkuek bi zutabetan euskaraz eta gaztelaniaz hurrengo 13 aleak kaleratuz, urtea amaitu arte, irailaren 27tik aurrera. Ale bakoitzaren erdia euskaraz ematera behartua izan zen, baina, hala eta guztiz ere, iruditu zitzaion ekinean jarraitu behar zuela. Urriaren 8ko alean isuna ordaintzeko dirulaguntza eskatu zien Azkuek harpidedunei, eta hara hor non agertzen diren 600 kolaboratzaile. Isuna ordaintzeko beste diru lortu zuen, baina pazientzia agortu zitzaion harpidedunen berri eskatu zionean Gobernadore Zibilak. Halako irainik pairatzeko ez zegoela prest erantzun zion Azkuek eta bertan bera utzi zuen hain maite izan zuen albistaria. Gero baretu omen ziren istiluak eta 1902an, Kirikiñoren lankidetzaz, bizkaieraz eta gipuzkeraz kaleratu zuen *Ibaizabal* aldizkaria. Baina hau beste historia bat da.

Alfonso Irigoien adiskidea, lankidea, ikerlari eta idazle jakintsu, zehatz eta nonbait sutua gogoan daukadala idatzi dut lan hau. Bera hil ondoren idazten dudan lehen lana da. Gera bedi hemen nire begirunearen adierazpena.